

*Hilaren 27an, Barrikako uretan "Itsaso Berria" arrantza ontziko I.I. 45 urteko tostarteko bat hil zen lanean zegoenean bere itsasontziak hondoa jo ondoren. Ostegunean, hilak 30, gehiengo sindikalak, elkarretaratzea egingo du goizeko 11:30etan Algortako portu zaharrean azken lan istripua hau salatzen eta interes ekonomikoen ginetik tostartekoen segurtasuna bermatu dadila exijituz.*

LAB sindikatuak lehenik eta behin beraien familia, lagun eta lankideei gure dolumina eta elkartasuna adierazi nahi dizkie.

2014ean, Euskal Herrian dagoeneko 35 langile hil dira euren lanpostuetan edo horien ondorioz, 3 Araban, 17 Bizkaian, 7 Gipuzkoan eta 8 Nafarroan.

LAB betidanetik eskatzen ari da arrantza sektorearentzako lan baldintza duinak behar direla. Hau da, interes ekonomikoen ginetik tostartekoen segurtasuna bermatu behar dela eta adibidez, eguraldi txarrarekin ez itsasoratzea edo tokatzen zaizkien atsedetak bete ditzatela bai itsasoan baita lehorrean ere.

Tostartekoak zergatik behartuak aurkitzen dira eguraldi txarrarekin itsasoratzea eta baldintza horietan itsasoan daudean lana egitera? Aski da!

LABetik bai armadore elkarteari, baxurako kofradiei, EAEko Arrantza Sailari, Espainako zein Frantziako gobernuei zera exijitzen diegu: arrantza arduratsu eta iraunkorraren alde egin dezatela, tostartekoen baldintzak hobetzeko, belaunaldi aldaketarako eta gure flota bideragarria izateko apustua egin dezatela eta euren probetxurako arrantzale-langileon eskubideekin eta biziarekin ez jokatzeko.

—